

PREOAK KALERA

EUSKAL HERRIA DAGO
ASPALDIAN TRISTE
ETENGABE ARI DA
AMNISTIAN ESKE

ASPERTUKO DENIKAN
EZ DUGU GUK USTE
PRESO DAUDEN ARTEAN
HORRENBESTE GAZTE.

ZIENTOKA OMEN DAUDE
PRESO HEMEN TA HAN
EGUARRITAN ETXEAN
TURROIRIK EZIN JAN...

HERRIEN ALDE JAUNAK
EGIN HAINBESTE LAN
'TA EZIN ETXERATU
ZEINEN TRISTEA DAN

DEMOKRAZIA DABIL
HITZETIK HORTZERA
DEMOKRATA OMEN DA
GAUR SUAREZ BERA

HORI EGIA BADA
PRESOAK KALERA
GUTXIENEZ BIDALI
GABONAK ALDERA.

ASPALDI ENTZUN DUGU
HAMAIKA HITZ EDER,
ZUZENAK OSO GUTXI,
GEHIENAK OKER

EZ BADIRA PRESOAK
ETXERATZEN LASTER
EZ DIZUGU SUAREZ
SINETSIKO EZER.



MATXAIN & OLIVERA